

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 157/2021 Erabakia, martxoaren 23koa. Onestea energia jasangarritasunerako ekintzak bultzatzeko laguntza lerroaren 2021-2022rako deialdia

Apirilaren 9ko Foru Gobernu Kontseiluaren 23/2019 Foru Dekretuaren bidez, Kontseiluaren ekainaren 26ko 31/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileen aldaketa onetsi zen.

Ebazpen honen xedea da 2021-2022ko deialdia egitea, energia jasangarritasuneko ekintzak bultzatzeko udalerrri eta kontzejuentzako laguntzen lerroari dagokiona.

Laguntza lerroak honako ekintza mota hauek diruz lagunduko ditu:

1. Eraikin eta ekipamenduen inbentario energetikoak egitea, parke mugikor eta argiteria publikoko instalazioak, kontsumoen kontrola, ikuskaritza energetikoa, eraginkortasun energetikoko ziurtagiriak, ekintza energetikoen planak eta hiri mugikortasuneko planak. 2. Monitorizazio ekipoak, ordu programazioa, urruneko kontrola eta antzeko baliabideak ezartzea, kontsumitzen den energia benetako beharrianetara egokitzeko.

3. Eguzki-argiztapeneko ekipamendua. 4. Energia berriztagarrien aprobetxamenduko instalazioak eta ekipamendua, aprobetxamendu termikoko eta elektrizitatea sortzeko sistemak barne: eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia eta minihidraulikoa. 5. Bideragarritasun azterlanak eta instalazioen proiektu teknikoak idaztea, eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia eta minihidraulikoa aprobetxatzeko, baita erabilera publikoko karga elektrikoko azpiegiturak ere.

6. Ibilgailu elektrikoak (bizikletak barne) kargatzeko puntuak ezartzea. Kargatzeko puntuak erabilera publikora bideratuta egongo dira edo, bestela, erakunde onuradunaren ibilgailuen zerbitzura.

7. Ibilgailu elektrikoak eskuratzea, bizikleta elektrikoak barne, erakunde publikoen titulartasun eta erabilerarako.

Laguntza horien 2021-2022 aldiko zuzkidura globala 164.000,00 euro izango da, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko aurrekontuko 60.2.05.64.00.762.90.01 "Energia eraginkortasun dirulaguntzak 2021-2022" izeneko partidaren kontura, honela banatuta: 44.000,00 euro 2021eko urterako eta 120.000,00 euro 2022korako.

Horregatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea energia jasangarritasunerako ekintzak bultzatzeko laguntzen lerroaren 2021-2022rako deialdia.

Bigarrena. Onestea diruz lagundu daitezkeen gehieneko zenbatekoak eta ehunekoak, taula honen arabera:

Ekintza mota	Dirulaguntzaren Gehiengo Zenbatekoa	Diruz Lagun Daitkeen Gehiengo Ehunekoak
1. mota. Eraikin eta ekipamenduen inbentario energetikoak egitea, parke mugikor eta argiteria publikoko instalazioak, kontsumoen kontrola, ikuskaritza energetikoa, eraginkortasun energetikoko ziurtagiriak, ekintza energetikoen planak eta hiri mugikortasuneko planak.	6.000 euro	Ehuneko 75
2. mota. Monitorizazio ekiptoak, ordu programazioa, urruneko kontrola eta antzeko baliabideak ezartzea, kontsumitzen den energia benetako beharizanetara egokitzeko.	6.000 euro	Ehuneko 75
3. mota. Eguzki argiztapeneko ekipamendua	25.000 euro	Ehuneko 40
4. mota. Energia berriztagarrien aprobetxamenduko instalazioak eta ekipamendua, aprobetxamendu termikoko eta elektrizitatea sortzeko sistemak barne: eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia eta minihidraulikoa.	75.000 euro	Ehuneko 40
5. mota. Bideragarritasun azterlanak eta instalazioen proiektu teknikoak idaztea, eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia eta minihidraulikoa aprobetxatzeko, baita erabilera publikoko karga elektrikoak azpiegiturak ere.	12.000 euro	Ehuneko 60
6. mota. Ibilgailu elektrikoetarako karga puntuak instalatzea, bizikletentzakoak barne. Kargatzeko puntuak erabilera publikora bideratuta egongo dira edo, bestela, erakunde onuradunaren ibilgailuen zerbitzura.	15.000 euro	Ehuneko 40
7. mota. Ibilgailu elektrikoak eskuratzea, bizikleta elektrikoak barne, erakunde publikoen titulartasun eta erabilerarako.	9.000 euro (1.500 euro bizikleta elektrikoetarako)	Ehuneko 20

Hirugarrena. Zenbatekoa 164.000,00 euro da, eta Arabako Foru Aldundiaren 2021erako aurrekontuaren 60.2.05.64.00.762.90.01 "Energia eraginkortasun dirulaguntzak 2021-2022" partidaren kontura ordainduko da, urteka honela banatuta:

2021eko urterako	44.000,00 euro
2022ko urterako	120.000,00 euro

Laugarrena. Zenbateko osagarriak ezarri ahalko dira kasu hauetan, horretarako beste deialdi bat egin behar izan gabe:

– Energia jasangarritasuneko ekintzak sustatzera bideratuta dagoen laguntza lerroko 2020-2021ko deialdiari dagokion 2021eko urtekoa likidatetik geratzen diren soberakinak aplikatzea; gehienez ere, 100.000,00 euro.

– Aurrekontu aldatzeen ondorioz lortutako beste soberakin batzuk aplikatzea; gehienez ere, beste 150.000,00 euro.

Deialdia argitaratzen den bezala argitaratu beharko da gehienezko zenbatekoak baino gehiago ematea xedatzen duen ebazpena, baina argitalpen horrek ez du esan nahi epea luzatzen denik eskaera berriak aurkezteko edo berriz ere hasten denik zenbatzen ebazteko epea.

Bosgarrena. Diruz lagundu beharreko ekintza hasi gabe egon beharko da 2021eko urtarriaren 1ean.

2021eko azaroaren 19a baino lehen egin beharko dira 2021eko urterokoari dagozkion gastuak, eta 2022ko uztailaren 8a baino lehen 2022ko urterokoari dagozkionak.

Ordainketa egiteko eskatzen diren agiriak 2021eko azaroaren 26rako aurkeztu behar dira, 2021. urteari dagozkion gastuetarako, eta 2022ko uztailaren 15erako 2022ko urtekoari dagozkion gastuetarako.

Seigarrena. Dirulaguntzen eskaerak baliabide elektroniko bidez aurkeztu behar dira I. eta III. eranskinek aipatzen duten dokumentazioarekin batera. Horretarako epea hilabetekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik hasita, azken eguneko 14:30a arte. Eskaerak bakar-bakarrik bitarteko elektroniko bidez aurkeztuko dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://e-s.araba.eus>); horretarako, eskatzaileek sartzeko ziurtagiri digitala izan beharko dute alde aurretik. Egoitza Elektronikora sartzeko bideak zeintzuk diren eta entitate ziurtatzaile batek jaulkitako ziurtagiri elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo Ezagutu egoitza – Nola sartu izeneko atalera. Arabako Foru Aldundiaren webgune instituzionalean

<https://web.araba.eus/es/-/solicitar-ayudas-sostenibiliad-energetica> eskuragarri dagoen informazioan, eskaera ongi aurkezteko jarraitu beharreko argibideak zehazten dira.

Izapideak nahitaez linean egin behar dituzten pertsonak bertaratuz egiten badute dokumentazioa Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztuz, linean egiteko eskatuko zaie Egoitza Elektronikoaren bidez. Ondorio horietarako, zuzenketa hori egin den eguna joko da eskaeraren aurkezpen-datatzat.

Zazpigarrena. Erakunde eskatzaileak baliozkotasuna emango die Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak laguntzaren eskaera orrian identifikaturik dagoen harremanetarako pertsonaren posta elektronikoko kontura bidali dituen jakinarazpen guztiei.

Zortzigarrena. Eskaerak ebazteko epealdia gehienez ere bi hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Interesdunei ebazpena posta elektronikoz bidaliko zaie, ebazpena eman ondorengo hamar egun baliodunetan. Esanbidezko ebazpenik ez emateak dirulaguntza ez dela eman esan nahiko du. Ebazpen horrek eta oinarriak betearazteko ematen direnek administrazio bidea amaituko dute.

Bederatzigarrena. Frogagiriak egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira. Kasu horretan, zehaztutako agiriez gain, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, idazkariak edo fede emaileak izenpetuta, Arabako Foru Aldundiaren erakunde webean (<https://web.araba.eus/es/-/solicitar-ayudas-sostenibiliad-energetica>) dagoen eredua erabiltuta, espedienteari eransten zaizkion fitxategiak jatorrizkoen irudi zehatza direla, erakunde eskatzaileak daukela eta eskatzen zaizkionean Arabako Foru Aldundiaren eskura jarriko dituela adieraziz.

Hamargarrena. Ebazpen honekin batera dauden eranskinak onestea. Ebazpen horiek deialdi honetara egokitu dira.

Hamaikagarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA

I. ERANSKINA

Dirulaguntza eskaera (III. eranskinetako inprimakia erabiltzea gomendatzen da)

- Erakunde eskatzailearen datuak (izena, IFZ, helbidea, telefonoa, e-maila...)
- Harremanetarako pertsonaren datuak (e-maila, izen-abizenak, sexua, kargua, telefonoa...).
- Ekintzaren izenburua, guztirako aurrekontua, eskatutako dirulaguntza.
- Eskatzailea udala bada, alkateak sinatu behar du; kontzejua bada, errejidore-lehendakariak.

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko ziurtagiriak (III. eranskinetako eredua erabiltzea gomendatzen da).

- Eskatutako ekintza egitea onartzeko osoko bilkurak, administrazio batzarrak edo auzokoen batzarrak hartutako erabakiaren egiaztagiria eta aurrekontuan diru erabilgarri dagoelako egiaztagiria.

- Beste erakunde batzuei xede berarekin dirulaguntza eskatu zaien edo ez eta, baiezkoan, eskuratu den edo ez agerrarazten duen ziurtagiria. Erakundea eta zenbatekoa zehaztu beharko dira.

- Orube edo eraikinen bat okupatu edo erabili behar izanez gero, hura udal plangintzako araudiarekin bat datorrela eta higiezina edo orubea baliagarri dagoela egiaztatzen duen agiria, udaleko alkateak eta/edo toki erakundeko lehendakariak ontzat emandakoa.

Azalpen memoria

- Proiektuaren deskripzioa, egungo egoerari buruzko memoria eta zer egiteko asmoa da goen adierazten duen proposamena. Ekintza justifikatzeko kalkuluak.

- Lanen programa, kronograma, burutzapen epealdia, aurreikusten diren hasiera eguna eta amaiera eguna.

- Aurreikusitako inbertsioaren energia aurrezpenaren eta efizientziaren justifikazioa.

- Jarduketak berrikuntza dakarrela alegatuz gero, horren justifikazioa; energia aurrezteko eta energia efizientzia hobetzeko planean proposatutako ekintzaren aipamena.

- Toki erakundeko biztanle kopurua, sexuaren arabera bereizita, eta datuaren iturria.

Aurrekontua

- Aurrekontua, partidaka xehatuta eta banakatuta

- Urteko zenbatekoen banaketa

- Finantzaketa plana

- Aurrekontuko baliabide erabilgarriak

- Eskatutako beste dirulaguntza batzuk (erakundea, zenbatekoa)

- Kontratu txikietan, esleipenak oinarritzat hartutako eskaintza ekonomikoak. Eskaera egiteko unean ez badago eskaintzarik, gastua justifikatzeko unean aurkeztu beharko dira.

II. ERANSKINA

Ordaintzeko eskaera

- Erakunde eskatzailearen datuak (izena, IFZ, helbidea, telefonoa, e-maila...)

- Harremanetarako pertsonaren datuak (e-maila, izen-abizenak, sexua, kargua, telefonoa...).

- Ekintzaren izenburua, guztirako aurrekontua, emandako dirulaguntza.

Justifikazio kontua eta erantsitako dokumentazioa

- Fede emaileak edo idazkariak egindako ziurtagiria, emandako dirulaguntzaren helburua eta xedea bete direla ziurtatzen duena; horrez gainera, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste dirulaguntza edo diru sarrerarik egon den zehaztuko du, kopurua eta jatorria aipatuz.

- Fede emaileak edo idazkariak egindako ziurtagiria, diruz lagundutako ekipamendu edo instalazioa gutxienez urtebetez mantenduko dela bermatzeko moduari buruzkoa, horrelako jarduketak direnean.

- Mantentze kontratua, sinatu baldin bada; ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeko jarduketetarako nahitaezkoa da (6. mota).

- Jardunaren justifikazio memoria, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituena. 4.000 eurotik gorako dirulaguntzetan, atal hauek sartu beharko dira:

- Egindako ekintzen deskripzioa. Eskuratutako ibilgailu elektrikoen edo instalatutako ekipamenduen marka eta modeloa.
- Jarduerak eragindako gastuak eta inbertsioak sailkatuta ageri diren zerrenda, datu hauekin: hartzekodunaren eta agiriaren identifikazioa, zenbatekoa, agiria noiz eman den eta, hala badagokio, ordainketa eguna. Dirulaguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera eman bada, egondako desbideratzeak adierazi beharko dira.
- Instalatutako ekipamendu guztiak identifikatuko dituen plano edo krokisa. 25.000 eurotik gorako dirulaguntzen kasuan, obra amaierako planoak.
- Ibilgailu, ekipamendu edo instalazioaren argazkiak
- Instalazioaren eguna. Denboran izandako garapena eta gorabeherak.
- Lortutako energia aurrezpenaren eta inbertsioaren efizientiaren justifikazioa. • Obraren azken ziurtagiria, enpresa instalatzaileak emana (4.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako bakarrik); edo, 1 eta 5. motetako jarduketan kasuan, egindako dokumentuen kopia.
 - Erakunde eskumendunak kontratua adjudikatzeko hartu zuen erabakiaren ziurtagiria.
 - Adjudikazioa egiteko oinarritzat hartu diren eskaintza ekonomikoak kontratu txikietan, eskaera egin zuenean aurkeztu ez bazituen.
 - Jardueran egindako gastu guztien faktura xehea (jatorrizkoa edo kopia konpultsatua).
 - Ordainagiria (jatorrizkoa edo kopia konpultsatua). Ekintzaren kostu osoa hartu ahal du barruan, edo dirulaguntzak estaltzen ez duen zatia baino ez. Kasu horretan, erakunde onuradunak dirulaguntzari dagokion zatiaren ordainagiria hilabeteko epean aurkeztuko du, hura jasotzen duenetik zenbatuta. Hauek onartuko dira ordainagiri gisa:
 - Bankuko jatorrizko ziurtagiria, non, gutxienez, agertuko baitira zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua daukala.
 - Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.
 - Dagokion udalaren kontu hartzailetza organoaren ziurtagiria.
 - Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan, bai eta horietatik eratorritako interesena ere.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

**Ingurumen eta
Hirigintza Saila**

Departamento de
Medio Ambiente y
Urbanismo

**2021-2022ko
deialdia**

Convocatoria 2021-
2022

**III. Eranskina.
Dirulaguntza eskatzeko
eredua**

Anexo III. Modelo para
solicitar la subvención

Energia jasangarritasunerako ekintzak bultzatzeko LAGUNTZA-ESKAERA
SOLICITUD DE AYUDAS para el impulso de acciones de sostenibilidad energética

Eskatzailea ■ Solicitante

Entitate onuraduna ■ Entidad beneficiaria

IKZ ■ NIF

Posta helbidea ■ Dirección postal

Telefona ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Egitasmoaren arduraduna kontakturako (Egitasmoaren zehaztapenak argitzeko harremana)

Persona de contacto encargada del proyecto (Contacto para aclarar detalles de la actuación)

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Sexua ■ Sexo

Emakumea
Mujer

Gizona
Hombre

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Telefona ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Eskatutako egitasmoa Actuación solicitada

Egitasmoaren izenburua ■ Título de la actuación

Laburpena. Ezaugarri eta magnitude nagusiak ■ Resumen. Características principales

2021ean egiaztatzeko
aurrekontua (BEZ barne)
Presupuesto a ejecutar en
2021 (IVA incluído)

 €

2022an egiaztatzeko
aurrekontua (BEZ barne)
Presupuesto a ejecutar en
2022 (IVA incluído)

 €

Aurrekontu osoa (BEZ
barne)
Presupuesto total (IVA
incluído)

 €

Gehieneko ehuneko edo
zenbatekoa (7. Onarria)
Porcentaje o importe
máximo según base 7

 %

Eskatutako dirulaguntza
osoa
Subvención total solicitada

 €

Entitatearen ordezkari legala (Alkate edo presidentea) naizen aldetik, dirulaguntza eskatzen dut, eta oinarriek eskatzen dituzten dokumentuak eransten ditut, ondoko zerrendan adierazten den moduan ■ Como representante legal de la entidad (Alcalde/sa o Presidente/a), solicito la subvención, y adjunto la documentación exigida por las bases según el siguiente listado

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Sexua ■ Sexo

Emakumea
Mujer

Gizona
Hombre

Data ■ Fecha

Ordezkarri legalaren sinadura eta erakundearen zigilua ■ Firma del representante legal y sello de la entidad



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.araba.eus

**Ingurumen eta
Hirigintza Saila**

Departamento de
Medio Ambiente y
Urbanismo

**2021-2022ko
deialdia**

Convocatoria
2021-2022

**III. Eranskina.
Dirulaguntza eskatzeko
eredua**

Anexo III. Modelo para
solicitar la subvención

Mesedez, emaitza zenbaki bana aurkeztutako dokumentuei, eta adierazi zenbakia taula honetan	Por favor, asigne un número a cada documento aportado y especifique ese número en esta tabla	Zenbakia/ Num.
Proiektuaren deskripzioa, egungo egoerari buruzko memoria eta zer egiteko asmoa dagoen adierazten duen proposamena. Jarduketa justifikatzeko kalkulak.	Descripción del proyecto, memoria descriptiva de la situación actual y propuesta a realizar. Cálculos justificativos de la actuación.	
Lanen programa, kronograma, burutzapen epealdia, aurrekusten diren hasiera eguna eta amaiera eguna.	Programa de trabajos, cronograma, plazo de ejecución, previsión de fechas de inicio y fin.	
Aurreikusitako inbertsioaren energia aurrezpenaren eta efizientziaren justifikazioa.	Justificación del ahorro energético y eficiencia de la inversión prevista.	
Jarduketak berrikuntza dakarrela alegatuz gero, horren justifikazioa; energia aurrezteko eta energia efizientzia hobetzeko planean proposatutako ekintzen aipamena.	Si se alega, justificación del carácter innovador de la actuación y referencia de la acción propuesta en el plan de ahorro y eficiencia energética.	
Toki erakundeko biztanle kopurua, sexuaren arabera bereizita, eta datuaren iturria.	Número de habitantes de la entidad local, desagregados por sexo, y fuente del dato.	
Aurrekontua — Aurrekontua, partidaka xehatuta eta banakatuta — Urteko zenbatekoen banaketa — Finantzaketa plana — Aurrekontuan erabilgarri dagoen kopurua — Eskatutako beste diru laguntza batzuk (erakundea, zenbatekoa) — Kontratu txikietan, esleipenak oinarritzat hartutako eskaintza ekonomikoak. Eskaera egiteko unean ez badago eskaintzarik, gastua justifikatzeko unean aurkeztu beharko dira.	Presupuesto — Presupuesto detallado y desglosado por partidas — Distribución de anualidades — Plan de financiación — Disponibilidad presupuestaria — Otras subvenciones solicitadas (entidad, cuantía) — Ofertas económicas en las que se basa la adjudicación en el caso de los contratos menores. Si no se dispone de las ofertas en el momento de la solicitud, deberán ser presentadas en el momento de justificar el gasto.	
Eskatutako ekintza egitea onartzeko osoko bilkurak, administrazio batzarrak edo auzokoen batzarrak hartutako erabakiaren egiaztagiria eta aurrekontuan diru erabilgarri dagoelako egiaztagiria.	Certificado del acuerdo de aprobación, adoptado por el Pleno, Junta Administrativa o Asamblea Vecinal, según corresponda, para la realización de la acción solicitada y su disponibilidad presupuestaria.	
Beste erakunde batzuei xede berarekin diru laguntza eskatu zaien edo ez eta, baieztatzeko, eskuratu den edo ez agerrarazten duen ziurtagiria. Erakundea eta zenbatekoa zehaztu beharko dira.	Certificado de si se ha solicitado o no, y en su caso, obtenido subvención por el mismo objeto a otras entidades, detallando entidad e importe.	
Orube edo eraikinen bat okupatu edo erabili behar izanez gero, hura udal planeamenduko araudiarekin bat datorrela eta higieztina baliagarri dagoela egiaztatzen duen agiria; hain zuzen ere; erakundearen ziurtagiria, udaleko alkateak eta/edo toki erakundeko lehendakariak ontzat emana.	En el caso de ocupación o utilización de solares o edificios, justificación del correcto encaje en la normativa de planeamiento municipal y la disponibilidad del inmueble o solar afectado, mediante un certificado de la entidad con el visto bueno del alcalde/sa del ayuntamiento y/o presidente de la entidad local.	



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

**Ingurumen eta
Hirigintza Saila**

Departamento de
Medio Ambiente y
Urbanismo

**2021-2022ko
deialdia**

Convocatoria
2021-2022

**IV. Eranskina.
Ordainketa eskatzeko
eredua**

Anexo IV. Modelo para
solicitar el pago

Energia jasangarritasunerako ekintzak bultzatzeko laguntza ORDAINKETA-ESKAERA

SOLICITUD DE PAGO de ayudas para el impulso de acciones de sostenibilidad energética

Eskatzailea ■ Solicitante

Entitate onuraduna ■ Entidad beneficiaria

IKZ ■ NIF

Proiektuaren izenburua ■ Título de la actuación

Eskatutako urterokoa ■ Anualidad solicitada

Egitasmoaren arduraduna kontakturako (Egitasmoaren zehaztapenak argitzeko harremana)

Persona de contacto encargada del proyecto (Contacto para aclarar detalles de la ejecución)

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Entitatearen ordezkari legala (Alkate edo presidentea)

Representante legal de la entidad (Alcalde/sa o Presidente/a)

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Dirulaguntza ordaintzea eskatzen dut, eta oinarriek eskatzen dituzten dokumentuak eranstean ditut, ondoko zerrendan adierazten den moduan

Solicito el pago de la subvención, y adjunto la documentación exigida por las bases según el siguiente listado

Data ■ Fecha

Ordezkari legalaren sinadura eta erakundearen zigilua ■ Firma del representante legal y sello de la entidad



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

Ingurumen eta Hirigintza Saila	2021-2022ko deialdia	IV. Eranskina. Ordainketa eskatzeko eredua
Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo	Convocatoria 2021-2022	Anexo IV. Modelo para solicitar el pago

Mesedez, emaitza zerbaki bana aurkeztutako dokumentuei, eta adierazi zenbakia taula honetan	Por favor, asigne un número a cada documento aportado y especifique ese número en esta tabla	Zenbakia/ Num.
Fede emaileak edo idazkariak egindako ziurtagiria, emandako diru laguntzaren helburua eta xedea bete direla ziurtatzen duena; horrez gainera, diruz lagundutako jarduerak finantzatu duten beste diru laguntza edo sarrerarik egon den zehaztuko dugu, kopurua eta jatorria aipatuz	Certificación expedida por el secretario o secretaria o fiel de fechos, en el que conste el cumplimiento del objetivo y finalidad de la subvención concedida y se detalle si existen otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia	
Fede emaileak edo idazkariak egindako ziurtagiria, diruz lagundutako ekipamendu edo instalazioa gutxienez urtebetez mantenduko dela bermatzeko moduari buruzkoa, horrelako jarduerak direnean	Certificación expedida por el secretario o secretaria o fiel de fechos acerca del modo en que se garantiza el mantenimiento mínimo de 1 año de la instalación o equipamiento subvencionado, cuando se trate de ese tipo de actuaciones	
Mantentze kontratua, sinatu bada; ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeko jardueretarako nahitaezkoa da (6. mota).	Contrato de mantenimiento, en el caso de que se haya suscrito, siendo obligatorio para las actuaciones de instalación de puntos de recarga para vehículos eléctricos (tipo 6).	
Jarduketaren justifikazio memoria, diru laguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituena. 4.000 eurotik gorako diru laguntzetan, atal hauek sartu beharko dira:	Memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. En el caso de subvenciones de más de 4.000 euros, deberá contener los siguientes apartados:	
<ul style="list-style-type: none"> Egindako ekintzen deskripzioa. Eskuratutako ibilgailu elektrikoaren edo instalatutako ekipamenduen marka eta modeloa. 	<ul style="list-style-type: none"> Descripción de las acciones ejecutadas. Marca y modelo de los equipos instalados o vehículos eléctricos adquiridos. 	
<ul style="list-style-type: none"> Jarduerak eragindako gastuak eta inbertsioak sailkatuta ageri diren zerrenda, datu hauekin: hartzekodunaren eta agiriaren identifikazioa, zenbatekoa, agiria noiz eman den eta, hala badagokio, ordainketa eguna. Dirulaguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera eman bada, egondako desbideratzeak adierazi beharko dira. 	<ul style="list-style-type: none"> Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto estimado, se indicarán las desviaciones acaecidas. 	
<ul style="list-style-type: none"> Instalatutako ekipamendu guztiak identifikatuko dituen plano edo krokisa. 25.000 eurotik gorako dirulaguntzen kasuan, obra amaierako planoak. 	<ul style="list-style-type: none"> Plano o croquis con identificación de todos los equipos instalados. Para subvenciones de cuantía superior a 25.000 euros, plano de fin de obra. 	
<ul style="list-style-type: none"> Ibilgailu, ekipamendu edo instalazioaren argazkiak 	<ul style="list-style-type: none"> Fotografías de la instalación, equipo o vehículo. 	
<ul style="list-style-type: none"> Instalazioaren eguna. Denborazko garapena eta gorabeherak. 	<ul style="list-style-type: none"> Fecha de instalación. Desarrollo temporal e incidencias. 	
<ul style="list-style-type: none"> Lortutako energia aurrezpenaren eta inbertsioaren efizientziaren justifikazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> Justificación del ahorro energético logrado y de la eficiencia de la inversión. 	
Obraren azken ziurtagiria, enpresa instalatzaileak emana (4.000 eurotik gorako diru laguntzetarako bakarrik); edo, 1 eta 5. motetako jarduketan kasuan, egindako dokumentuen kopia.	Certificación final de la obra, emitida por la empresa instaladora (sólo para subvenciones de más de 4.000 euros); o bien, en el caso de actuaciones de los tipos 1 y 5, copia de los documentos producidos.	
Organo eskudunak kontratua esleitzeko hartutako erabakiaren ziurtagiria.	Certificado del acuerdo de adjudicación del contrato adoptado por el órgano competente.	



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.araba.eus

**Ingurumen eta
Hirigintza Saila**

Departamento de
Medio Ambiente y
Urbanismo

**2021-2022ko
deialdia**

Convocatoria
2021-2022

**IV. Eranskina.
Ordainketa eskatzeko
eredua**

Anexo IV. Modelo para
solicitar el pago

Kontratu txikietan, esleipenak oinarritzat hartutako eskaintza ekonomikoak, baldin eskaera egiteko uanean aurkeztu ez baziren.	Ofertas económicas en las que se basa la adjudicación en el caso de los contratos menores, si no las aportó en el momento de la solicitud.	
Jardueran egindako gastu guztien faktura xehea (jatorrizkoa edo kopia konpulsatua).	Factura detallada de la totalidad de los gastos efectuados en el desarrollo de la actividad (original o copia compulsada).	
Ordainagiria (jatorrizkoa edo kopia konpulsatua). Jarduketaren kostu osoa hartu ahal du barruan, edo diru laguntzak estaltzen ez duen zatia baino ez. Kasu horretan, erakunde onuradunak diru laguntzari dagokion zatiaren ordainagiria hilabeteko epean aurkeztuko du, hura jasotzen duenetik zenbatuta. Hauek onartuko dira ordainagiri gisa:	Justificante de pago (original o copia compulsada). Podrá comprender el coste total de la actuación o bien únicamente la parte no cubierta por la subvención. En ese caso, la entidad beneficiaria aportará el justificante del pago de la parte correspondiente a la subvención en el plazo de un mes desde que la reciba. Como documentos justificativos del pago se admitirán los siguientes:	
<ul style="list-style-type: none"> Bankuko jatorrizko ziurtagiria, non, gutxienez, agertuko diren zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua daukala. 	<ul style="list-style-type: none"> Certificado bancario original en el que se especifique como mínimo el importe, la fecha y al entidad beneficiaria del pago o transferencia. Dicho certificado deberá estar firmado y/o con el sello estampado del banco. 	
<ul style="list-style-type: none"> Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin. 	<ul style="list-style-type: none"> Extractos bancarios electrónicos recibidos por e-mail u órdenes de transferencias telemáticas con sello estampado del banco que realiza el pago o transferencia. 	
<ul style="list-style-type: none"> Dagokion udalaren kontu hartzailtza organoaren ziurtagiria. 	<ul style="list-style-type: none"> Certificado del órgano de intervención del Ayuntamiento correspondiente. 	
<ul style="list-style-type: none"> Hala badagokio, itzulketaren ordain gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan; bai eta horietatik eratorritako interesena ere. 	<ul style="list-style-type: none"> En su caso, carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados así como de los intereses derivados de los mismos. 	